

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 357/2020 Erabakia, uztailaren 28koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntza lerroari, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2021eko programaren barruan**

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen ditu.

Aipatutako arauaren II. tituluaren auzo harremanak sustatzeko ekimen programari buruzko xedapenak ezarri eta honelako laguntzak emateko arauak eta irizpideak finkatzen dira.

Programa horrek landa giroko gizartean auzo harremanak eta talde izaera sustatu nahi ditu, tradiziozko sistema erabiliz edo auzolanen bidez lanak eginda.

Horretarako, eta aplikatuz Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, auzo harremanak sustatzeko 2021eko programaren barruan Arabako toki erakundeei eman beharreko laguntzak arautuko dituen deialdia onetsi behar da.

Horregatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko oinarriak, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2021eko programaren barruan.

Bigarrena. Programa ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak II. tituluaren xedatutakoaren arabera dago araututa. Horiek horrela:

#### 1. Erakunde onuradunak.

Laguntza programa honen onuradun izan daitezke 21/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan jasotzen diren erakundeak.

Ezin dira onuradunak izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluaren adierazitako arau hausteren bat dela-eta zehatu diren erakundeak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako egoeretan daudenak ere.

#### 2. Diru hornidura.

Hasierako finantza hornidura Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuan berariaz edo era osagarrian auzolanak finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batura gisa dago kuantifikatuta. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako horniduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz.

Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditu erabilgarria egotea.

#### 3. Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Eskaerak aurkezteko epea iragarkia ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasi eta 2020ko irailaren 30ean amaituko da, 23:59an.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen, toki erakunde bakoitzak erabakia hartu beharko du, bere antolaketa eta funtzionamendu araubidearen arabera, eskatzen dituen obra eta zerbitzuei buruz.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkeztuko dira (<https://e-s.araba.eus>); beraz, ezinbestekoa izango da eskatzaileek, aldez aurretik, ziurtagiri elektronikoa izatea. Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate egiaztatzaile batek jaulkitako egiaztigiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo atal honetara: Conoce la sede- Cómo Accedo.

Eskaerarekin batera, aurrekontu xehakaturia edo egin beharreko obren balioespena (kostua eta BEZa zein bere aldetik adierazita) aurkeztu behar da. Hirigintza arloko aholkuak ematen dituen udal teknikariak proiektuaren beharra egiaztatzen badu (eskaera inprimakiarekin batera dagoen "Proiektuaren beharraren ziurtagiria / Hirigintza txostena" inprimakian), obren aurrekontua edo balioespena aurkeztu beharrean, obrak burutzeko proiektu teknikoa aurkeztu beharko da, non, orobat, jaso beharko baitira Eraikuntzaren KodeTeknikoaren 1. eranskinean finkatutako agiriak eta edukiak. Eranskin hori Eraikuntzaren KodeTeknikoa onesten duen martxoaren 17ko 316/2006 Errege Dekretuak onetsi zuen.

Hirigintza arloan aholkularitza ematen duten udal teknikariek egiaztatzen badute (eskaera-inprimakiarekin batera doan "hirigintza proiektuaren/txostenaren beharraren ziurtagiria" inprimakian) eragin sektorialak daudela, eskabidearekin batera toki erakundeak erakunde eskudunari egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da, eskatutako obra baimentzeko, baimena emateko edo aldeko txostena emateko. Dokumentu hau aurkezteko epea laguntza deialdirako eskaera aurkezteko berbera da.

Hirigintza arloan aholkularitza ematen duten udal teknikariek egiaztatzen badute (eskabidearekin batera doan "hirigintza proiektuaren/txostenaren beharraren ziurtagiria" inprimakian) jarduketaren xede den ondasunak katalogazio edo babes motaren bat duela, bai eta ustezko arkeologia eremuetan jardun nahi dela adierazten bada ere, eskaerarekin batera organo eskudunari (AFAko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak, hirigintzako udal teknikari aholkularia, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua) aurkeztutako txostenaren eskaeraren kopia aurkeztu beharko da. Dokumentu hau aurkezteko epea laguntza deialdirako eskaera aurkezteko berbera da. Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren edo hirigintza arloko udal teknikari aholkulariaren aldeko txostena beharrezkoa balitz, laguntza eskaera aurkezteko epea bera izango da.

Bidenabar, jarduna zoladura jartzeko baldin bada edo jardunaren barruan zoladura ere jarri beharra sartzen bada, aurkeztutako aurrekontua edo balorazioa behar bezain zehatza izan beharko da, zenbat metro koadroz ari garen jakiteko eta zer material erabiliko den ere jakiteko.

21/2013 Foru Arauaren 7. artikulua 2. apartatuak aipatzen duen hormigoizko modulua honela dago ezarrita 2021erako: 30,29 euro/m<sup>2</sup>.

Bidali beharreko agirien bolumena 10MB baino gehiago bada, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean edo horrekin hitzarmena izenpetuta duten toki erakundeetako erregistro orokorretan aurkeztu ahal izango dira, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Arabako Foru Aldundiaren Agirien Erregistroen Erregelamendua onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko 37/2011 Foru Dekretuak xedatutako eretan ere. Era berean, euskarri magnetikoan (CD edo antzekoa) edo paperean aurkeztu ahal izango da.

Eskaerak osorik bete ezean edo oinarri hauetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio adierazitako epean agiri edo datu horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela; aurretik ebazpena emango zaio hori adierazteko.

21/2013 Foru Arau horren 17. artikuluan 5. apartatuan ezarritakoaren arabera, ezingo da eskatu laguntzarik Lurralde Oreka Sailak kudeatzen dituen beste laguntza programa batzuen 2021erako deialdietan eskatu ziren obretarako, eta, batez ere, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021 deialdiaren barruan eskatu ziren obretarako.

#### 4. Obren tipologia.

21/2013 Foru Arauaren 6. artikuluan jasotako jarduerak egiteko laguntzak jaso ahal izango dira, baldin eta jarduera horiek auzolan sistemaren bidez egin badaitezke.

Hala, 6. artikuluan horren idatz zatiak aipatzen dituen jardunak gauzatzeko, organismo eskumendunen baimena eta/edo aldeko txostena behar bada, jardunari ekin baino lehen eduki beharko da.

Eskatutako jarduna "Hornidura edota saneamendu sareak partzialki konpontzea, antzemandako gabezien ondorioz" epigrafean jaso bada, orduan honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Hautemandako gabeziei buruzko agiriak (konponketen fakturak...)

b) Agiri horien orde, udaleko teknikari aholkulariaren txosten teknikoa aurkeztu ahal izango da, non azalduko baitira hautemandako akatsak, haien izaera, garrantzia, antzintasuna eta bere iritziz eskaera aztertzekeko interesgarri izan daitekeen beste edozer.

Baldin eta eskatutako jarduna Arabako Foru Aldundiaren Errepide Erregistroan sartutako bideetan egin beharreko obretarako bada, eskaerarekin batera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak egindako aurrekontua edo agiri teknikoa aurkeztu beharko da. Gisa horretako obretarako, mantentze edo garbiketa lanak ere sar daitezke, eta salbuespenez akabera zurrunean (hormigoia) egin beharreko lana sar daiteke baldin eta baldintzak fisikoek (esaterako malda handietan lan egitea) hala eskatzen badute eta hala definituta ageri badira aurkeztutako agiri teknikoetan. Horrez gain, aipatutako Nekazaritza Garapenerako Zerbitzu horrek berriaz gomendatuko ditu horiek, toki erakundeari bidalitako txostenean.

Haien kategoria gorabehera, legez izendatutako arkeologia zonetan jardunez gero, aginduzkoa da Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena.

21/2013 Foru Arauaren 8. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, ondasun eta eskubideen titularra izango da bat baldin eta ondasun eta eskubide horiek toki erakundearen izenean izena emanda badaude jabetza erregistroan, edo bestela, toki erakundearen Ondasunen Inbentarioan jabe gisa jasota badaude.

#### 5. Emakida araubidea eta hautatzeko irizpideak.

Dirulaguntzak esleitzeko araubidea eta aplikatzekoak diren hautatze irizpideak ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan daude jasota.

Laguntzen deialdiaren ebazpena emateko, emandako epean aurkeztutako aurrekontu ekonomikoan oinarrituz egingo da dirulaguntzaren hasierako kalkulua; aldeak edo akatsak antzeman badira, zuzendu egingo dira, eskaera zuzentzearen ondorioz araudian eraturako beste ondorio batzuen eragina jasotzen bada salbu.

#### 6. Prozeduraren ebazpena eta jakinarazpena.

Prozeduraren ebazpena eta haren jakinarazpena ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

Eskatutako obrak sartzeari edo ez sartzeari buruz hartutako ebazpena toki erakundeei jakinaraziko zaie, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du.

Toki erakunde onuradunak, berriz, bete egin beharko ditu dirulaguntzak emateko ebazpenaren jakinarazpenean ezarritako baldintzak eta betekizunak.

7. Obrak burutzeko eta agiriak aurkezteko epea.

Deialdi honen babesean diruz lagundutako lanak egiteko jarri den muga eguna 2021eko azaroaren 30a da. Halaber, epe horretarako aurkeztuko da lan horiek justifikatzeko dokumentazioa, nahikoa izan beharko delarik dirulaguntza kalkulatzeko eta dirulaguntzaren ordainketaren izapideak egiteko.

Ordainketaren egiaztagiriak aurkezteko epea bi hilabete izango da, dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera.

8. Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean.

Gertatuko balitz "Auzo harremanak sustatzeko ekimenak" laguntza programaren kontura diruz lagundutako jardun bat aldi berean beste dirulaguntza batzuekin ere finantzatzea, 21/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan horretarako xedatutakoari jarraituko zaio.

9. Dirulaguntzak errebokatzea eta itzultzea.

Funtsezkoak dira dirulaguntzak emateko eta benetan jasotzeko ezarri diren baldintzak; hortaz, bete ezean, guztiz errebokatuko dira, eta itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak, eta, hala badagokio, aurre egin beharko zaie dirulaguntzak arautzen dituen foru araudian aurreikusitako erantzukizunei.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea aipatutako obrak izapidetzeko eta egiteko zenbanahi agindu eta xedapen emateko, bai eta dagozkien aurrekontu partidek hartarako aukera ematen dutelako gerorako emakidak onesteko ere, betiere prozedura ebazteko kide anitzeko organoak proposatutako lehentasun hurrenkeraz zainduz. Era berean, ahalmena izango du izan litezkeen itzulketak eskatu eta baliogabetzeko.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 28a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**